

Grekoa II

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Lisias, *Eratostenesen heriotzaren defentsan*, 5

Gertatutakoaren kontakizunaren hasiera

Ἐγὼ τοίνυν ἐξ ἀρχῆς ὑμῖν ἅπαντα ἐπιδείξω τὰ ἐμαυτοῦ πράγματα, οὐδὲν παραλείπων, ἀλλὰ λέγων τάληθῆ· ταύτην γὰρ ἐμαυτῷ μόνην ἠγοῦμαι σωτηρίαν, ἐὰν ὑμῖν εἰπεῖν ἅπαντα δυνηθῶ τὰ πεπραγμένα.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: Ἐγὼ τοίνυν ἐξ ἀρχῆς ὑμῖν ἅπαντα ἐπιδείξω τὰ ἐμαυτοῦ πράγματα, οὐδὲν παραλείπων.
2. Aditz honen analisi morfologikoa ἐπιδείξω. Jokatu aditz hori indikatiboko orainaldian (aktiboa).
3. Hitz honen analisi morfologikoa: ἅπαντα. Singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: πράγματα. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Historiografiaren hastapenak Grezian: Herodoto.
6. Aristofanesen *Lisistrata*: obraren gaia.

B AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Apolodoro, *Epitomea* VII, 4

Ziklopeen lurraldera iristea

Καταλιπών δὲ τὰς λοιπὰς ναῦς ἐν τῇ πλησίον νήσῳ, μίαν ἔχων τῇ Κυκλώπων¹ γῆ προσπελάζει, μετὰ δώδεκα ἐταίρων ἀποβὰς τῆς νεώς. ἔστι δὲ τῆς θαλάσσης πλησίον ἄντρον, εἰς ὃ ἔρχεται ἔχων ἀσκὸν οἴνου.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: ἔστι δὲ τῆς θαλάσσης πλησίον ἄντρον, εἰς ὃ ἔρχεται ἔχων ἀσκὸν οἴνου.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἔρχεται. Jokatu aditz hori indikatiboko orainaldian (aktiboa).
3. Izen honen analisi morfologikoa: ἐταίρων. Izen horren singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: γῆ. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Tragedia grekoa: poeta tragiko nagusiak.
6. Euripidesen *Medea*: obraren pertsonaia nagusiak.

¹ “Ziklopeak” izenaren genitibo plurala



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisan eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzeagatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.